

POS-E54

*PD en Psicodidáctica: Psicología de la Educación y Didácticas Específicas***DEBAGOIENAKO IKASLERIAREN JARDUERA FISIKOAN PARTE-HARTZEA. ARRAZOIAK, ERAGINAK, PROPOSAMENAK. IKERKETA LAN BATEN AURKEZPENA**

Iñaki Arana

EHU

Lan honekin abian doan ikerketa prozesu bat aurkeztu nahi da. Kirol jardueretan parte-hartze tasak baxuak dira eskola garaiko biztanlerian (6 eta 18 urteko biztanleriaren %45 sedentariotzat hartu daiteke), kexkagarriak badira datuak Lehen Hezkuntzan oso larriak bezala hartu daitezke DBHn, eta beti ere, larriagoak nesken kasuetan. Lehen hezkuntzako neska-mutilen kirol jardueretan parte-hartzea aztertu nahi da, bereziki nesken parte-hartzea. Faktore, baldintza, egoera, desberdinen ondorioz gazte batek erabaki dezake kirol jarduerekin, hasi, jarraitu edo amaitu; gazteek denbora falta, asperkizuna eta interes falta aipatu izan ohi dituzte, kirol jarduerak uzteko orduan. Kanpoko eragileen indarra ez da makala, honako hauek identifikatu dira eta hauetan sakondu nahi da: Kirol egituren eta antolakuntzen androzentrismoa, emakume kirolarien ikusezintasuna, nesken intereseekin eskola kirolaren eta gorputz hezkuntzaren konexio falta, estereotipoz eta aurreiritziz betetako gaur egun "kontsumitzen" duten ikus-kultura. Informazio jasotzeko tresna desberdinen inplementazioa egingo da: galdetegia, irudien bilduma eta eztabaida taldea. Ikasleen ahotik jaso nahi dira haien, arrazoiak, kexak, bizipenak, nahiak eta proposamenak.